

Sindikatu

sindicato/syndicat

Orokorki, *interes komun den defentsarako eratzen den *elkarte bat. Frantses Estatuan, a.b., hiri batzuren zerbitzu komunak kudeatzeko sindikatu komunartekoak daude; Ipar Euskal Herrian mendietako herri-basoak holaxe kudeaturik daude. Berezi, interes profesionalak zaintzeko dira sindikatuak: ugazabek eta langileak. Politika mailan, alokatuen *erakundeak ditugu esanguratsuenak.

SINDIKALISMOA; PROLETALGOA; GIZARTE-KLASEAK; ARAZO SOZIALA; GATAZKA.

Sindikoa

síndico/syndic

Bizkaian, Nafarroa Beherean eta Lapurdin, herrialde mailan bi agintari-mota zeuden: bata *Erregearen ordekoa eta bestea *herriak hautatutakoa. *Beterazteko boterea herriaren orde ez erabiltzeko hautatzen zena sindikoa zen.

EUSKAL INSTITUZIOAK.

Sionismo

sionismo/sionisme

XIX. mendearen bukaeran agertzen da sionismoa: izen honekin Palestinan egon beharko zuen eta munduko judu guztien aterbe izango zen *Nazio-Estatu judutarra sortzeko mugimendua izendatzen da. Theodor Herzl (1860-1904) dugu sortzailea; honek lortu zuen, ingeles *kolonialismoarekin bat eginez eta Balfour agiria bidez (1917), juduak Palestinan sartzea. Gero, *USAren *inperialismoaren magalean, Israelgo Estatu sortu zuten, bertako bizilagunak, *palestindarrak hain zuzen, egoziak gertatzen zirelarik.

PALESTINDARRAK.

Sistema (politikoa)

Systema (zati ezberdinez bildutako osotasuna: sy(n) - (h) **istanai** -tik) hitz grekotik etorri datorren hitza da eta, usadio arruntean eta politikara mugaturik, hiru modutara uler daiteke: 1.- *erregimen politiko gisa (s. frankista); 2.- *gobernu-era gisa (s. presidentzial); 3.- *Estatu-era (s. demokratiko) gisa ere bai.

Zientzia politikoetan beretan, adiera edo zehaztasun-maila diferentetan erabiltzen da sistema hitza. Lehen zentzu arrunt batetan, *Estatu-gizarte bezalatsu, Esta-

tu-gizarte, oinarrizko printzipio baten arauera antolaturik eta printzipio haren bitzita sozialean gauzarazteko *erakunde horniturik, ageri den aldetik (teokrazia, *monarkia dinastikoa, *konstituzionalismoa, *kolektibismoa, *totalitarismoa). Honela ulertuta, sistema batek berak, Estatu, gobernu eta erregimen-molde diferenteak jantzi ditzake (a.b. totalitarismoak). Adiera guztiotan, sistema hitza, adjektiboren baten laguntzaz, izen propio bihurtu ohi da eta terminologia bera maiz gertatzen da, hari datzekion metodologia behintzat, nahaspide askoren kausa (hasieratik beretik *faxismoa eta *komunismoa sistema berbatetan katalogatuz, a.b.).

Horregatik, bigarren zentzu batetan, zientzia politikoetan kontzeptu tekniko bezala erabili ohi da gaur sistema berba, hain zuzen sistema teoriaren arauera, alde aurretik baloraziorik idarokitzen ez duen kategoria enpiriko-analitiko guztiz abstraktu gisa, sistemak, eta berdin sistema oro, egitural-funtzionalki ikertzeko. Sistema politikoa, gizarte-sistema orokorraren azpisistema da, kulturala eta ekonomikoa ere diren legez; baina, T. Parsons teoriaran adierazten denez, helburu bat hatzematuko funtzioek ezaguterazia da eta, horregatik, santzio-sistema (kastigu/sari) batez hornitua. Sistema politiko batetan funtzio orokor hauek seinala daitezke (G.A. Almonden arauera): 1.- **Input** aldean, a) *interesak artikulatzea, b) interesak biltzea (biok agertzen baitituzte eskakizunak) eta c) laguntza, edo eza, sistemari. Sistema batetan, lehenik, hari eskatzen zaiona eta laguntzen zaiona dago. Gero, sistemak nola erantzuten duen. Hein honetan beste hiru funtzio orokor seinalatzen du Almondek: 2.- **Output** aldean, a) balio orokorreko eta obligaziozko arauak ematea, legegintzaz esate baterako; b) arauak betetzea; c) santzionatzea. Funtziook ez dira inestruktionalki ulertu behar (*Montesquieuren doktrinan hiru botereak bezala) eta ez derrigor *instituzioei lotuta ikusi behar ere: sistema batek (sozial nahiz politiko) badaki kastigatzen eta saritzen, edo kontrolatzen, instituzioetatik aparte ere... Sistema politi-

koen azterketarako, metodologia honetan beti ere, prozesu eta *egitura sozialen konplexitatea teorikoki erreduzitzen duten lau abiaburu edo eredu ezberdin erabiltzen dira gaur:

1. Parsonen sistema-teoria egitural-funtzionala.
2. Luhmannen funtzional-egiturala.
3. Sistema politikoaren **Input-Output**-analisi (Eaton/Almond).
4. K.W. Deutschen Kibernetika politiko.

Joxe Azurmendi

ERREGIMENA; ESTATUA; GOBERNUA.

Slogan

*Erakunde edo *alderdi politikoek jendearen *interesa bereganatzeko erabili ohi dituzten esaldi edo hitzak. *Manifestaldietan, iragarpenetan etab. agertzen dira.

Sobrecarta

FORU-BAIMENA.

Solidaritatea

solidaridad/solidarité

Ikuspuntu edo *interesen komuntasuna. Arrazoi sozial edo politikoengatik *Herri edo *Nazio bati eskainitako laguntza morala edo materiala.

NAZIOA; NAZIONALISMOA; PROLETALGOA; GIZARTEKLASEAK; INTERNAZIONALAK; NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK.

Sota eta Llano, Ramón

Bilbotar untzijabe ahaltsua, 1857.ean sortua. Legegizona. Mende honetako lehen urteetako *euskal nazionalismoak ezagutu zuen oligarkarik aipagarriena. «Euskalerrriako» taldekoa. Talde honen laguntzaz baliatuz, *EAJk sei zinegotzi sartu zituen Bilboko *udaletxean 1899.eko hauteskundeetan. Hainbat *elkartere (Sota y Aznar, Euskalduna, Caminos de Hierro del Norte, Minera Sierra Menera, Banco de Bilbao, etabaren) sortzaile edo kudeatzaile, Merkatal, Industri eta Nabigazio Garbarako lehen idazkari eta Untzijabeen Elkartearen biziarteko lehendakari, kargu hauek guztiok bereganatu zituen euskal nazionalista izan zen. Sotak, 1907.eaz gero, moderatuen joera sostengatu zuen, *autonomia erregionalista (ik. erregionalismoa) epel baten alde ager-

tuz. **Comunión Nacionalistaren** politikan eragin handia izan zuen.

PNV; EUSKAL NAZIONALISMOA.

Sovietak

soviets/soviets

Sovietak Errusiako *Langile-Kontseiluak dira. Sovieten lehen taldea Petersburgen erazten da 1905.ean ia berez bezala eta *alderdien laguntzarik gabe. Herri xumeak tokiko arazoak tokian erabakitzeke ohitura zeukan zentralismoari kasurik egin gabe. Sovietek herriaren aspaldiko joera hori hezurramitu besterik ez dute egiten.

Sovietek *ministraritza gisako beren *batzorde exekutiboa zeukaten. Hemen 562 *ordezkarietatik 31 besterik ez ziren batzordekoak; 31 horietatik, berriz, 22 enpresatako langile-ordezkariek ziren eta beste 9 alderdi iraultzaileen ordezkariak (*mentxevike, *boltxevike eta sozialista iraultzaileak). Alderdietako ordezkariak, ordea, ez zeukaten deliberatzeko ahalmenik. Herrian eta lantegietan egiazki sustaiturik zegoen *mugimendua zen Sovietena. Leninen azken urteetan eta bereziki ondorengoetan, *iraultzaren gidariek Sovieten herri-mugimendu indartsu hori Alderdi zentralistan urtzen dute. Horrela galtzen da Sovieten esperientzia aberatsia.

LANGILE-KONTSEILUAK.

Sovietar Errepublika Sozialisten Bata-suna (SESB)

Unión de Repúblicas Socialistas Soviéticas (URSS)/Union des Républiques Socialistes Soviétiques (URSS)

Batasun hau 1922.eko Abenduaren 30ean eratu zen. Gaur egun 15 Errepublika daude barruan. Hona hemen zeintzuk: ESESF edo Errusiako Sovietar Errepublika Sozialista Federatua; Errusia Zuria; Ukraina; Uzbekistan eta Turkmenistan (1925), Tadzikistan (1929); Armenia, Azerbaidjan eta Georgia; Estonia, Letonia, Lituania eta Moldavia (1940); Kazajstan eta Kirgiziako Errepublikak.

SESBren azalera 22.386.200 Km² takoa da. 1970. ean 241 milioi bizilagun zituen. Hiri-burua Mosku da.

Sozial-demokrazia

Langileriaren *interesak *erakunde ofizialetan legalki ordezkatzeko eta aurrera ateratzeko, era demokratiko parlamen-